

**IÑAUTERĪETAKO  
KANTU  
LĪBURUXKA**

- 
- 3** [Diana](#)
- 4** [Galtzaundi](#)
- 6** [Pitxi pitxi](#)
- 7** [Neskatil pospolin](#)
- 7** [Isabelita](#)
- 8** [Gaur txantxo naiz](#)
- 9** [Pintxana](#)
- 10** [Baratzako pikuak](#)
- 11** [Pello ziri-ziri](#)
- 12** [Berso berriac...](#)
- 15** [Artillero](#)
- 15** [Iriyarena](#)
- 16** [Paquita la Vergaresa](#)
- 17** [Tolosako zortzikua](#)
- 18** [Lizardi](#)
- 19** [Adiskide maiteok](#)
- 20** [Zein ederra](#)
- 21** [Troika](#)
- 22** [Troika](#)
- 23** [Mugi mugi](#)



# DIANA UXOLA

Jeiki guztiok goiz kantaren soñua  
eta ez galdu ondoren datorrena  
danbolin otsak eta txaranga alaiak  
egin dezaten gure gozamina  
Tolosar legez edari ta janaz  
berdindu zagun ondoren barrena  
ta zabaldu gure umore ona  
jun dedin pozik onuntz datorrena.  
Jeiki jeiki oi ortatik  
gaur tolosarrak  
iñauteriak ¡beti!  
alaitzen gaitu ¡guztiz!  
Jeiki jeiki oi ortatik  
gaur tolosarrak  
goazen festara danok goizetik



## BERTSO BERRIAK

# ▲ TOLOSAKO GALTZAUNDIK BERE BURUARI JARRIAK

RAMOS AZKARATE

1

Neri deritzat Galtzaundi,  
apellidua det goñi,  
Aldasoro izen goitiya  
deitzen dirate neroni;  
iltzerikan ez nuben  
lenago pentsatzen,  
bañan oraingotikan  
ez naiz eskapatzen,  
testamentu egitera  
nua ni lenbailen,  
nere parientiak  
lasatu ditezen.

2

Aitaren Semiaren  
Espiritu Santuaren,  
jaun zerukuak lagun zaidala  
lan onetan neri arren;  
sentimentu bakarra  
dadukat barrenen,  
alaba ipurtaundiya  
utzitzia emen,  
orra neregatikan  
oyek nola dauden,  
Jaunak eraman nazala  
zerura lenbailen.

3

Nere lengusu Pocofinori  
nai diozkat bada utzi  
nere eskatzeko estanteriya  
bere jenero ta guzi;  
bañan ango kristalik  
ez dezala ausi,  
bestela utziko dizkat  
guziak Ramosi,  
egiten badiote  
jaun oni igesi,  
laister juango zaizka  
danak Rodriguez'i.

4

Ni il da gero nere emaztia  
penaz ilko balitzake  
nere onduan enterratzia  
iñola al balitz nai nuke;  
eta gañian jarri  
letra bat aundiya,  
emen dago Galtzaundi  
eta konpañiya,  
poz aundi bat artu zun  
tolosako erriyak  
merkatu ziralako  
ordun erariyak.

5

Entierrua nai det egitia  
nere bigarren klasian,  
lau zapatarik eramatia  
gañera berriz aidian;  
jota nabarra juaz  
Enpero kalian,  
sobrekamak balkoitan  
naramatenian,  
Arramele zubiyan  
aizken aizkenian,  
zagi bat ardo jarri  
kajaren gañian.

6

Nik oraindaño egin izandu  
dituan testamentuak  
gaur bertatikan izango dira  
ayek danak borratuak;  
eta orain firmatu  
nere testiguak,  
aditu baituzute,  
gaur nere kontuak,  
ixilik idukiarren  
nere sekretuak,  
Dametako iturriyan  
eran kuartiullu bat.

**TA GALTZAUNDÍ,  
TA GALTZAUNDÍ,  
APELÍDUA DET GOÑÍ**

# PITXI PITXI

## (OTZUANEGO MARIARI 1969KO APIRILEAN HARTUAK)

Pitxi pitxi polit bat  
nik daukat zutzako  
apain apain jantzita  
apapara joateko.  
Nere izar ederra  
nere begi urdiñ  
zenbat lolo dezun gaur  
arratsaldean egin.  
Zer poz-pozik esnatu  
zeraden laztana  
atoz seaskatxotik  
amatxorengana.  
Begira zer pitxia  
amatxok zutzako  
apain apain jantzita  
apapara joateko.

Begira zer zintatxo  
txuri ta gorria  
amatxok ekarriko  
"papattak" berriak.  
Alde ortikan "pintxo"  
au txakur petrala  
ez dek ikusten aurre  
izutzen dekala

# NESKATIL POSPOLIN

**UXOLA**

Oi! Neskatik pospolin, pirrin,  
ezpain gorri, begi urdin,  
polita ta krabelin,  
zu ikusi ta bihotza,  
batzutan tilin,  
bestetan pirrin  
tirripititin.

**ISABELITA**

**UXOLA**

Ai! Tolosako neskatilak  
txit alai gaude gaur mutillak,  
arpegiz eder, soiñez fiñak  
zeratelako atsegiñak.  
Zurekin nai det gaur dantzatzia  
zu maitatu ta ezkonduztia  
gu biok beti lñauteria  
izaten bazera nere emaztia.



# GAUR TXANTXO NAIZ

8

## UXOLA

Gaur txantxo naiz, biyar txantxo  
iñauteri gugan dago  
iñundikan tolosarra  
ezin bizi jatorrago.  
Onegatik egin dezagun dantz,  
alkarrekin polit,  
zu gabe bizitzen ez dakit,  
eta Austerre, pasatzen danean,  
zuretzako bai !  
lan egingo nik, lan egingo nik

◀◀ Aurreko orrira





# PINTXANA

## LUÍS REZOLA "TXIMELA"

Pin, Pin, Pintxanatarrak gu gera  
Pin, Pin, Pintxanatarrak beti.  
Umore ona pasatzen degu  
beti sagardotegian,  
gu bezelakorikan ez baita  
tolosako errian.

Neska gaztiak ez lotsik euki  
guregana etortzeko,  
Pintxanatarrak beti zai gaude  
zuekin dantzatzeko

# BARATZAKO PIKUA HERRIKOIA

Baratzako pikua iru txurten ditu (bis)

Neska mutil zaliak (bis)

Ankak arin ditu

Ankak arin ditu

Ankak arin ditu

10

“Ankak ariñak eta burua ariñago (bis)

Dantzan obeto daki (bis)

Artajorran baño

Artajorran baño

Artajorran baño

Ai, ene!, nik ere nai nuke

Oi, ene! Zuk nai bazenduke

# PELLO ZIRI-ZIRI

## LUIS REZOLA "TXIMELA"

Ikusi nuenian,  
nik zure sudurra,  
iruditu zitzaidan, moñoña,  
lukainka muturra.  
Ai! ai! Pello ziri-ziri,  
Izaskungo menditik moñoña  
zu ziñan erori.  
Ai! ai! ziri-ziri Pello,  
gizonak ez dit ongi ematen  
mozkortu ezkerro.  
Ikusi nuenian,  
zure belarria,  
iruditu zitzaidan, moñoña,  
azaren orria."

# BERSO BERRIAC SENAR EN

SASIAÍN

MUSIKA INSTRUMENTAL<sup>A</sup> - SALUSTIANO BALZA

1

Canciones bonitas  
nai nituzque jarri,  
para los carnavales  
entreteni-garri,  
riñendo estuvieron  
senar emazte bi,  
diciendo disparates  
batac bestiari.

2

La esposa decía  
senarragatican  
no le puedo sacar  
ardoteguitican;  
se pone caliente  
Napar belchetican,  
no le gusta remojar  
iturricotican.

3

Que habladora eres  
emazte neria,  
como si no supieras  
aukera bidia;  
con cacho longaniza  
arrautza paria,  
para mí, caldo de ajo  
oliyo gabia.

4

De la taberna al café  
zeranian juaten  
para entrar eres listo  
ez daqui noiz irten;  
campechano suele estar  
traguac eraten  
tu tampoco no sabes  
barauric egoten.

5

Tú tienes muchas quejas  
guizonagatican,  
para mentir no tienes  
batere lotsican;  
ya no puedes andar  
ascotan chutican  
porque tocas corneta  
charro mochetican.

6

Del café suele venir  
goizian-goiz aldera,  
con su íntimo amigo  
caliac neurtzera;  
a lo mejor se cae  
escalletan bera,  
como a una criatura  
sartzen det oyera.

12

# MAZTE BATZUERI JARRIAC

**7**

Si supieras hablar  
gure charro motza,  
creo que no estaría  
esateco lotzac;  
cayendo en la calle  
ausi ditut ortzac,  
señal que no estaba  
barrumbeco otzac.

**8**

Como un bacalao  
zaude secatuba,  
por beber demasiado  
beguic gorrituta;  
para el hombre prudente  
ederra conduta,  
anteayer me vino  
chapela galduta.

**9**

Para las cuatro y media  
asten da quejatzten;  
dolor de estómago  
det nic sentitutzen;  
vientos en el vientre  
zaizca alchatutzen,  
con la ñapa Navarra  
ditut sampatutzen.

**10**

Muy bien le haces tu  
oyari guardiya,  
a las ocho te llevo  
gozari chiquiya;  
para cuando levantes  
beti eguardiya,  
que me estás diciendo  
picara erdiya.

**11**

Poca diferencia  
degu alkarrekin,  
cuando tenemos con que  
guri-guri eguin;  
siempre enfadaremos  
ez izanarequin,  
no venir con el palo  
erdi ausiyarequin.

**12**

De estas canciones  
au da acabera,  
de aquí en adelante  
componduco guera;  
los buenos oyentes  
atozte onera,  
por una perra chica  
saltzen da papera.

13

Hurrengo orrira ►►►



# ARTILLERO

## HERRIKOIA

Artillero dale fuego  
ezkontzen zaigula pastelero.  
Eta zeñekin? eta norekin?  
Orpo ziñikaren alabakin.  
Orpo zikin, gona luze  
atzeko-aldeko erregidore.  
Jotzen zioten tarrapatatan,  
zergatik nexkatxa zatarra zan.  
Orpo zikin, gona luze  
kaleko loiaren erregidore.  
Deitzen dioten zarran zan zan zan,  
zergatik neskatxa zatarra zan.

# IRIYARENA

## HERRIKOIA

Ai! Tolosa'ko zezen suzkoa  
izan zaitez zorionekoa.  
Zezena dator arkupetatik  
sua dariola adarretatik  
zinbuluka ta zanbuluka ta  
jendearen atzetik.



# PAQUITA LA VERGAREJA

## HERRIKOIA

Txin-txin atea iriki zazu  
txin-txin ezin det iriki  
txin-txin alkatea dator  
txin-txin alguazillakin.  
Ai! Zu gau-txori  
ez ekarri kontutxo ori  
zoaz eta esan orixe  
parrandako lagunei.

16





# HIMNUA TOLOSAKO ZORTZIKUA

**RAMOS AZKARATE**

Baguaz da baguaz,  
baguaz kantari,  
alegrantza emanaz  
erri guztiari;  
festa polit polit bat  
nai genuke jarri,  
ikusi nai duenak  
plazara etorri

17



# LIZARDI

## MILLAN TELLERÍA

18

Tolosako inauteri, umoretsuen zaindari  
mozorrotu, txantxo jantzi,  
dantza eta oihurrintzi.  
Herri guztia alaitzen,  
gu gerade Lizardiko,  
Lizardiren jarraitzaile  
eta gatoz kantari.

# ADISKIDE MAITEOK

## HERRIKOIA

Adiskide maiteok  
ekin bai lanari

Kriseilu, lapiko, pertzak  
burruntzali eta eltzeak  
aise konpontzen gu gara  
merke eta trebeak.

Eta lana musu truke  
pozik egingo genuke  
hor beheko neska polittek  
eskatzen badigute.

Tolosar neska ponpoxak  
ez al dugu beste lanik?  
aurtengoz badugu aski  
eta goazen aurrera.



# ZEIN EDERRA

20

Zein ederra, zein xarmanta  
Tolosako inauteria?  
herri jator tolosarra  
agurtuz dugu atsegina.

Hungariako kaldereroak gara  
etorri Tolosaldera  
laister Momok aginduko digu  
nahiz eguna nahiz eta gaua

Inauteri alaiaren iragarle gu gara  
Ai atsegina eta algara  
Aizak, jozak, jozak  
Aizan, jozan, jozan.



# TROIKA

## UXOLA

Sukaldekoak geralako  
Maitea sukaldea  
Txit maitea degu  
Gure anaitasuna  
bertan da berotu  
Hargatik gabiltza  
guztiok beti umoretsu  
Maite degu  
jana eta edana  
baina bai eta gure inauteri  
hargatik agur  
Sukaldeko mutila  
tolosara etorritako  
Kanpotarrei



# TROIKA

## KARLOS LINAZAZORO

22

Horra, beltxaran morena  
Habanatik hona izarren pilpira,  
elkarri begira  
lau begi eder dira  
gure ezpain goxoak, maite  
juntatzen badira.

Oi mutiko  
kanela Tolosako  
itsasontzi bat dago  
zuk noiz hartuko,  
fardela egin  
eta banoa zugana  
maitasunak bilduko gaitu  
elkarrengana.



# MUGI MUGI (BAILA NEGRA)

**XABIER TELLERÍA**

Mugi, mugi gorputz hori  
gogotsu  
zure dantzak  
jartzen nau dantzan  
berdin zait gorria izan,  
horia, zuria edo beltzarana.  
Dantzan hasitakoan  
dantzan hasitakoan  
nahiz ta gorriak ikusi  
ez gara gorritzen  
txantxo azpian.

The background of the poster is a photograph of a large crowd of people at a festival or celebration. Overlaid on this are several colorful graphic elements: a large hand in the upper center making the 'OK' gesture; a red balloon on the left; a white rocket with a red cone on the right; and a blue exclamation mark in the lower center. The sky is filled with falling confetti in various colors. The text is prominently displayed in the center.

# GOZATU IN AUTERIAK EUSKARAZ!

TOLOSA